

# EXCERPTA

11. zenbakia

1987-apirila

gaiak

orrialdeak

-----  
Hesiodo-ren Teogonia.....269-271

Benantzi Fortunato.....272-274

Definitiones, etymologiae, explicaciones e Sancti Augustini scriptis depromptae.....275-288

Grezia-ko Mitologia  
(barne-orrietako eranskina)

latin-grekozko idazleen  
itzulpen-ikerketa lanak

Jon Gotzon Etxebarria

Gernika



Hesiodo dugu olerti grekoan lehenengo nortasuna, gi zabanako bati dagokiona. Helikon mendi-egietan artzain zebilela, Musen zerbitzurako deia hartu zuen. Hesiodo-rentzat jainkoak ez dira irudimen artistikoaren joko bat, egiazko ahalmenak baizik. Jainkoen aldra zenbatu ezinekoa sailkatu guraz atontzen du bere poema "Teogonia".

Grekoentzat ezegarria zen lana gorai patu egiten du eta etika-balioaz inguratzen. Ikuspegi ezkorrak ere agertzen ditu: gizakien garapenaren beherakada, emakumearen gaitakeria eta bere garaiko bizitzaldi arekiko gogoeta ilunak.

Bere idazlanak bi hauek: "Teogonia" eta "Lanak eta Egunak".

Badaude beste batzu, bereak ez badira ere, berarengan oinarriturik idatziak.

"Egunak eta Lanak" izenekoan laboreentzako sasoi eta hilabete egokiak azaltzen ditu; itsasketarako eranskin bat ere badakar eta lan bakoitzeko hileko egun egokien zerrenda bat.

# ΗΣΙΟΔΟΥ ΘΕΟΓΟΝΙΑ

- 1 Μουσάων Ἑλικωνιάδων ἀρχώμεθ' αἰεῖδεν,  
αἱ δ' Ἑλικῶνος ἔχουσι ὄρος μέγα τε ζάθεόν τε  
καί τε περι κρήνην ἰοειδέα πῶσ' ἀπαλοῖσιν  
ὄρχευνται καὶ βωμῶν ἐρισθενέος Κρονίωνος.
- 5 Καί τε λοεσσάμεναι τέρενα χροῖα Περμησσοῖο  
ἢ Ἴππου κρήνης ἢ Ὀλμειοῦ ζαθέοιο  
ἀκροτάτῃ Ἑλικῶνι χοροὺς ἐνεποιήσαντο  
καλοῦς, ἡμερόντας· ἐπερρώσαντο δὲ ποσσίν.



# HESIODO-ren TEOGONIA

- 1 Musa Helikoniarrak abes ditzagun lehendabizi,  
Helikon mendi handia eta sakratua bizitoki-  
tzat dutenak, iturri urdinaren eta Kronion aha-  
ltsuaren aldarearen inguruan oin bigunez dan-  
tzan ari direnak.
- 5 Beren gorputz atsegingarriak Permeso-n edo Hi-  
o iturburuan edo Olmeio sakratuan ikuzi ondo-  
ren, Helikon-eko erpinean aldra eder-atseginak  
antolatzen zituzten eta oin-jauzkari ari zire-  
n.

HELIKON: Beozia-ko mendia, zuhaitzetan ugaria.

KRONION: hemen Zeus-en ordeaz.

OLMEIO: Beozia-ko ibaia.

HIPOKRENE (HIPO iturria): Helikon mendiko iturria.

(jarraitzeko)

530. urte inguruantsu jaio zen Treviso-tik hurbil Italian. Tours-ko Martin deunari esker begien geso a osatu zitzaion eta 565. urtean edo santuaren hi lobirantz erromes irten zen. Jaieraz baino olerkieraz nabarmenagotu zen erromesaldia. Germania-ko errege Sigiberto-ren ezkontzarako ondu zituen bertsoek ospe handia ekarri zioten. Handik harat edonon gelditzen zen, gizon atsegina zen eta atea erraz zabaltzen zizkioten denek. Berak bertsozko ordaina ematen bazekien.

Tours-etik hegoaldeko Galian zehar ibili zen kanta-kantari, gaztelurik gaztelu. Poitiers-ko monaste gi batetan Radegunda errege franko Klotario I. ar-en alarguna zegoen. Bertantxe gelditu zen gure Benantzi.

Adiskide onek eskaturik apezgoa hartu zuen eta monastegi haretako gogo-zuzendaritza eraman zuen. Gerago Poitiers-ko gotzaina ere aukeratua izan zen. Olermen sena bizia zuen, noski. Antxinako kristau-olerkarien beheraldian Fortunato-k ez du berdintze korik. Erraz eta xalo daki eguneroko bizitzaren zertzeladak neurtitz ederretan azaltzen.

Halere bere garaiko gustu eskasari ezin ihes egin guztiz eta larregikeri asko sartzen du bere olerkietan, askotan bertsoen ederra lorrindu beharrean. Besteak beste, bereak dira kanta eder bi: Pange lingua gloriosi eta Vexilla regis prodeunt, oso ezagunak eta abestuak.

CARMINA izeneko 11 liburutan heldu zaizkigu haren neurtitzak. Beste idazle batzuren poemak ere atondurik lan luzeak egin zituen: "De vita S. Martini", (2243 hexametro), Tours-ko Gregorio-ri eginiko eskaintzan dioenez, "intra bimestre spatium" osotua: (hilabete bian).

Hitz lauz ere santuen legendak idatzi zituen hizkera errazean herritarren eskolatzeko.

(Hona hemen Radegunda-ren etorrerak bere baitan sortzen duen pozaren erakusgarri olerkitxo hau)

Unde mihi rediit radianti lumine vultus?  
 quae nimis absentem te tenuere morae?  
 Abstuleras tecum, revocas mea gaudia tecum,  
 Paschalemque facis bis celebrare diem. 5  
 Quamvis incipiant modo surgere semina sulcis,  
 hic egomet hodie, te revidendo, meto.  
 Colligo iam fruges, placidos compono maniplos,  
 quod solet Augustus mensis, Aprilis agit.  
 Et licet in primis modo gemma et pampinus exit,  
 iam meus Autumnus venit et uva simul. 10  
 Malus et alta pirus gratos modo fundit odores,  
 sed cum flore nova iam mihi poma ferunt.  
 Quamvis nudus ager nullis ornetur aristis,  
 omnia plena tamen, te redeunte, nitent.

Nondik zatozkit, argiz arpegia dizdiz?  
Hain urrundurik, nongo, nolako lokarriz?

Nire poza zurekin galdu ta irabazi,  
Bazko-jaia bi aldiz duzu osparazi.

Hildoetan haziak erne berri arren,  
zu berrikusiz gaurxe dut nik uzta biltzen.

Fruituak jasoz, nasai ezpalak eginez,  
Agorrileko lana ohi dena, Aprilez.

Aihen eta aleak badatoz astiro;  
nik, berriz, Agorrila dut ta mahats-aro.

Sagar, madari goitik usain ona dator;  
lore berritan zaizkit sagar-ale emankor.

Landare-izpirik ez zelai soilduetan;  
halere, zu itzultzean, denak blai argitan.

61 **GURTZA (Jaungoikoarena-Aingeruena)** : "Si ergo nusquam in eloquiis divinis reperitur sanctos Angelos appellatos deos, ea mihi causa potissimum occurrit, ne isto nomine homines ad hoc aedificarentur, ut ministerium vel servitium religionis quae graece λειτουργία vel λατρεία dicitur, sanctis angelis exhiberent; quod nec ipsi exhiberi ab hominibus volunt, nisi illi Deo qui et ipsorum et hominum Deus est. Unde multo utilius Angeli vocantur, qui latine nuntii nuncupantur; ut per nomen non substantiae, sed officii, satis intelligamus illum Deum a nobis eos colere velle, quem nuntiant."

(Enarrationes in Psalmos, 135, 3)

Eta Jaungoikoaren hitzetan inoiz agertzen ez bada Aingeruak jainkoak deituak izan direla, hauxe iruditzen zait arrazoirik handiena: grekoz λειτουργία edo λατρεία esaten zaion erlijio-betebeharra edo ekin-tza aingeru santuei buruz betetzeko, izen hau dela eta, gizonak bultzatuak ez zitezen; haiek ere ez dute nahi horrelakorik gizonen aldetik, euren eta gizonen Jaungoikoa den Harenttzat ez bada. Hori dela eta, egokiago datorkie Aingeru-izena, latinez mandatariak. Horrela, izakeraren izena alde bat utzirik, eginbeharraren izenaren bidez aski argi ikus dezagun euren iragartzen duten Jaungoiko bera gurtzea nahi dutela.

• ἄγγελος, grekoz, horixe da: GEZNARI/MANDATARI.

- 62 **HALABEHARRA/PATUA** : "Secundum eorum sententiam sive opinionem, qui ea dicunt esse fortuita, quae vel nullas causas habent, vel non ex aliquo rationabili ordine venientes; et ea fatalia, quae praeter Dei et hominum voluntatem cuiusdam ordinis necessitate contingunt."  
(De Civitate Dei, V, 1)

Halabeharrezkoak dira, holako en ustez edo aburuz, ezetariko kausarik ez dutenak, edo nolabaiteko arrazoizko ariatik ez datozenak; ezinbestekoak, berriz, Jaungoikoaren eta gizonen borondatea gorabehera, halako noraezko ariak dakartzanak.

- Latinez, FORS=ustegabe, halabeharra; FATUM=ezinbestea.  
Euskaraz badugu Fatum hortatik eratorritakoa: PATU, hain zuzen ere.  
Eta FATUM, FOR, FARI, FATUS sum aditzetik aterea; adierazi edo mintzatu esan nahi duen hortatik, alegia.

- 63 **HAMARREKOA** : "Cui labori merces illa redditur in fine, quae denarii nomine nuncupatur (Mat., 20, 2-13). Sicut autem ternarius a tribus, quaternarius a quattuor; ita denarius a decem nomen accepit."  
(Sermo 210, 8)

Lan horri azkenean denari izeneko ordaina ematen zaio (Mat., 20, 2-13). Hirutik hiruko eta lautik lau ko bezalaxe atera da hamarretik hamarreko (decemetik denari).

- denari txanpon-mota bat bazen antxina, geroko hizkuntza erromantzeetan eta gurean dinero-dirua orokorki hartua adierazteko geratu da.



Denarius Tiberii

DNARIUS, nummus argenteus romanus, aequivalens drachmam, cuius valor erat 0.90. Pls.: Mt. 20, 2; Mc. 6, 37; Ionn. 12, 5.

(Colunga-Turrado: "Biblia Vulgata"; B.A.C., Matriti MCMLIII; 1297 eta 57<sup>x</sup> orrialdeetan)

- 64 **HARRIMENA/ZENTZUN-GALTZEA** : "...aut per demonstrationem in ecstasi, quod nonnulli latini stuporem interpretantur; mirum si proprie, sed divine tamen, cum sit mentis alienatio a sensibus corporis (De diversis quaestionibus ad Simplicianum, lib. II, 1-1)

edo ekstasiz bezala, latinzale batzuk harrimena deitu diotena; zehazki esateko asko da; edonola ere Jaungoikozko eraz, gorputzaren zentzumenetatik adimena besterentzea bait da.

Orixe-k eta, behinolako eliz-literaturan "éxtasis" esateko zentzun-galtzea erabiltzen zuten. Etimologiari begiratuta, deskribapen egokia liteke, gertakari hori aditzera emateko. Halere, erlijio-bizitzan ekstasik esangura oso berezia du eta edozein zentzun-galtzea ecstasis daiteke; ez alderantziz, zeharo ulertzekotan. Horregatik nire itzulpenean latinezko originalari, ecstasis-i, lotu naitzaio. Hau, ostera, grekotik hartua dugu: ἔκστασις

opis adiuvate dño reddidisse. Ruis  
bus paruz. xl quibz minū est. michi  
ignoscant: quibus autē satis est. non  
michi. sed deo meū gratias congratulantes agant. Amen.

Finito libro sit laus et gloria cristo. *(Handwritten signature)*

*liber mag. bte Marie ad mochos pp. T. E.*

Textus sancti Augustini de civitate  
dei. magūtie imp̄ssus explic. feliciter

Anno



lxxiiij.

(De Civitate Dei-ren azkenengo orrialdea, Fust eta Schöffler-ek argitaratutako lehenengotariko libururatu bat/1473 inguruantsu/Philippe Wolff: "Les langues occidentales")

## Ἀγαμέμνων

Agamenon elezaharrean erregetzat agertzen da era bereziz, "Iliada"-n gudarozte akearraren buruzagi nagusitzat. Bere antxinakoen izenak direla eta, Atrida deitu ohi zaio, edo Pelopida edo Tantalida ere bai. "Iliada"-n Argos-ko errege bezala agertzen da, batzutan Mizenas-koa bezala, holakoetan Argos-ko tronua Diomedes-i ematen diola. Azkenengo hau Itsasontzien Katalogoko azalpena da, enparau poema guztia berriago den pasarte interpolatua. Azkenengo tradizioan, ostera, Lazedemonia-ko erregetzat agertzen zen, Amiklas-en hiriburua zedukala.

Agamenon Klitemestra-rekin zegoen ezkondata; beronek parte handia hartzen du haren kondairan. Klitemestra, Helena-ren ahizpa eta honen antzera Leda eta Tindareo-ren alaba, lehen Tantalo-ren, Tiestes-en semearen emaztea izana dugu. Agamenon-ek, ordea, senarra hil eta Tantalo eta Klitemestra-ren seme jaioberria ere bai. Hilketatik bikoitz hau eta Klitemestra Agamenon-ekin gogorik gabe ezkondua zelako, Kastor eta Polux Dioskuroek, haren nebek, erregeari jazarpena egin zioten. Honek Tindareo bere aitagarrebarengana jo zuen babes eske. Azkenean Kastor eta Polux Agamenon-ekin adiskidetu ziren. Halere, Klitemestra-ren elkartzek, krimen batez hasiak, madarikazioa zeraman gainean, eleza-

harraren hariak erakusten digunez.

Klitemestra-gandik Agamenon-ek hiru alaba izan zituen:Krisotemis,Laodize eta Ifianasa,eta seme bat,Orestes.Hauxe da elezaharraren lehenengo agerpena.Gero,baina,alaba bat agertzen da,Ifigenia,Ifiansa-ren berdina eta azkenean Laodize-ren ordezkari tragikoek Elektra aipatzen dute,"Iliada"-ren idazlearentzat guztiz ezezaguna.Seme-alaba hauen artetik tragikoek hauetxek ezagutzen dituzte batik bat:Ifigenia,Elektra eta Orestes.

TROIA-ko GUDUA:Helena-ren eskua ezkontzeko asmoz askok eta askok nahi zutela eta Tindareo-k,Ulises-en aholkuz,zinpean behartu zituen Helenaren nahia errespetatzera eta aukeratua zedina inork ez eragozteko neskatxaren jabetzan.Are gehiago,erasotua balitz,beste denak hura laguntzera etorriko zirela.Paris-ek Helena bahiturik zuela,Menelao Agamenon-engana joan zen laguntza eske.Honek egindako zina gogoratu zien buruzagi ei eta horrela sortu zen Troia erasotzeko lehenengo gudarien taldea.Agamenon aukeratu zuten denek aho batez buruzagi nagusitzat,bere adoreagatik,edo hauteskundera egiteko bidea ondo prestatu zezan.Gudariak Aulide-n bildu ziren."Iliada"-n Zeus-ek behingoan agerrarazten du haren aldeko zantzua:Apolo-ri egindako opari baten ondoren,suge bat jauzi zen aldaretik aldame neko zuhaitz batetara eta kabi bateko zortzi txo

larre-kume irentsi zituen.Eta ama ere bai.Guiztiz bederatzi.Gero sugea harri bihurtu zen.Kalkantek zera esan zuen:horrekin Zeus-ek adierazi gura zuela Troia hamar urtegarrenean konkistaturik egongo zela.Eskilo-k beste harrigarritzko gertaera bat dakar:erbi ernaria,arrano bik erdibitua.Kalkante-ren ustez hauxe zen horren esangura:Troia suntsituko zela,baina Artemis ez zela jarriko grekoen alde.

"Iliada"-ren ondorengo poema batek dakarrenez,(Katu Ziprioak,noski)grekoek,Troia-rako bidea jakin ez eta lehenengo Misia-ra jotzen dute beren ontziekin,eta gudaldi batzuren ondoren,ekaitz bategi sakabanatzen ditu,nor bere herrialdera itzultzen.Ondamendi honetatik zortzi urtera berriro Aulide-n elkartzen dira.Itsasoa,baina,itsasontzientzat zarratua gelditzen da barealdi bat zela eta.Kalkante aztiak dio orduan barealdi hura Artemisen suminak sortua dela.Arrazoi askogatik edo Agamenon orein eme bat hildakoan harrotu zelako,Artemis-ek ez zukeela hobeki egingo eta.Edo Atreok behinola jainkosari arkumea oparitzat eskaini ez ziolako.Edo,bestela,Agamenon-ek agindu omen ziolako bere alaba Ifigenia-ren jaioturtean emaririk ederrena eskainiko ziola,eta bere alaba Ifigenia eskaini ez ziolako.Guzti honegatik jainkosak opari bat eskatzen zuen:Ifigenia bera.Agamenon-ek amore eman zuen,handiguraz edo herritarren onerako.Hortik sortu zitzaion Klitemestra-



ri bere senarrarenenganako gorrotoa, gero eta handiagoa. Azkenean espedizioa martxan hasi eta ontziek Tenedos-en egotaldi bat egin zuten. Bertan azaldu zen lehenengo aldiz Akiles eta Agamenon-en arteko etsaigoa, Troia-ren aurrean grekoak arriskuan jarri behar zituenaren erakusgarri. Garai hartan Agamenon ek agindu zuen Filoktetes Lemnos-en bertan behera uzteko, haren zauritik kiratsa zeriolako eta haren txilioek opariak nahasten zituztelako.

Hiriaren inguratzearen lehenengo bederatzi urteak igaroak ziren. Hamargarrenean Agamenon-ek, Akiles elkar hartua, inguruetako hirien aurka piratakeritan ibili zen. Gudakinaren zati bat, Briseida, Akiles-ek beretzakotu egin zuen eta Agamenon-ek beste bat, Kriseida, Krises Apolo-ren apaizaren alaba. Apolo-k alaba eskatu zuen erreskatearen truke. Agamenon-ek ezetz eta Apolo-k izurria zabaldu zuen zigortzat grekoen gudataldean. Hortxe hasten da "Iliada"-ren kontakizuna. Gudarien batzarreak Agamenon Kriseida itzultzera behartu zuen. Alabaina, erregeak, ordainez, Akiles-ek Briseida ematea eskatzen du. Hori zela eta Akiles haserre. Ezetz eta ezetz eta badoa bere dendara. Orduan Agamenon-ek mandatarri biren bitartez, (Taltibio eta Euribates eurok) ofizialki erreklamatzeko Briseida. Akiles-ek ezin bestean neska askatu, baina ez du gudaketan aritu nahi. Tetis-ek eskaturik Zeus-ek amets-iruzur bat bidaltzen dio Agamenon-i, Akiles-en laguntzarik gabe Troiaz jabetuko dela sinestaraziz. Bestalde, aspaldiko orakulo batek erregeari ziotsanez, akearr-

en kanpamenduan liskarra sortu eta orduantxe eroriko zela hiria.

Borrokaldea hasten da, Agamenon bera partaide dela, eta ekintza nabarmen batzu burutzen ditu. Baina, zauriturik geratzen da eta alde egin beharrean arkitzen da. Kanpamendua eraso ondoren eta Akiles bere ondoan borrokari izan ezik dena galduko zela ikusirik, adiskidetu egiten da eta Briseida bidaltzen dio eta gainera bere alaba baten eskaintza ere egiten dio eta opari ederrak ere bai. Hortik aurrera Agamenon ia ez da aipatzen "Iliada"-n eta dena dabil Akiles-en inguruan. Geroagoko epopeiek, Hektor eta Akiles-en heriotzen ondorengo beste ekitaldi batzu egozten dizkio te Agamenon-i; batez ere, Akiles-en gorpu-ondoan egiten diren gudaketak direla eta, eta heroearen izkile ez jabetzeko sortzen diren tira-birak direla eta. Odisea-ren arauera, Troia jausi eta gero, gudakin lege z Kasandra profetisa, Priamo-ren alaba, beretu zuen. Beronengandik bizkiak izan omen zituen: Teledamo eta Pelope. Agamenon-en etorrera eta Troade-tiko bere irteera narrazio epikoen iturria izan ziren. "Odisea"-k Agamenon eta Menelao-ren arteko eztabaida bat dakar; Menelao-k gudua amaitu eta berehalaxe itzuli nahi zuen; Agamenon-ek, ostera, luzaru nahi zuen geratu, Atenea-ren ederra, oparien bidez, irabaztearren. "Itzulketa"-ren poemetan azaltzen da nola ontziratze orduan Akiles-en itzala agertzen zaion, geroko zoritxarrak kragarri eta lotu guraz. Era berean itzala k Priamo-ren alabetariko bat, Polixena, oparitzat hiltzea eskatu zion.

Aberriera heltzean, Egisto-k, Klitemestra-ren amoran-teak, jaeritako zelatari batek ez zion Agamenon-i begirik kentzen. Egisto-k Agamenon oturuntza handi batera gonbidatu eta hil egiten du; eta haren lagunak harekin batera, oturuntza ospatzen zen aretoan ezkutaturik zeuden hogeitaz gizon lagun harturik. Beste kontatera batzuk diotenez, Klitemestrak berak hartzen du parte, Kasandra bere lehiakidea hilez. Pindaro-k gaineratzen duenez, bere senarraren jatorrikoengana-ko amurruz, Oreste ere, bere semea, hil nahi omen zuen. Olerkari tragikoek dakartzaten inguruneak beste-lakoak dira: Agamenon, Homerorenean bezala, mahaian da goela zauritzen dute, edo bainu aldian erailtzen du-te; andreak alkandora bat eman bait zion mangak josi-ta eta ez bait zen gauza bere burua defenditzeko. Hi-ginio-ren esanetan, hilketaren eragilea Eax, Palamedes-en anaia izan zen, Agamenon-ek Palamedes harrika hiltzeko agindu zuela eta asperkunder. Antza, Eax-ek Klitemestra-ri esan zion nola bere senarrak Kasandra nahi zuen eta ez bera. Horretxek bultzatu omen zuen Klitemestra krimena egitera, Agamenon oparia eskaintzen zegoela aizkorakada batez zaurituz, eta Kasandra hilez. Kontaera hau eta Egiakearen eta Diomedes-ena oso antzekoak dira.

Badakigu nola gero Orestes semeak Agamenon-i buruz bengantza hartu zuen.

ΗΛ. ὦ φάος ἀγνὴν  
καὶ γῆς ἰσόμοιρ' ἀήρ' ὥς μοι  
πολλὰς μὲν ὀρήνων ᾠδὰς,  
πολλὰς δ' ἀντήρεις ἥσθου  
στέρωνων πηγάδας αἰμασσομένων,  
ὄπότεν δυοφερὰ νύξ ὑπολειφθῆι.  
τὰ δὲ παννυχίδων ἤδη στυγεραὶ  
ξυνίσσασ' εὐναὶ μογερῶν οἴκων,  
ὅσα τὸν δύστηνον ἐμὸν ὀρηνῶ  
πατέρ', δν κατὰ μὲν βάρβαρον αἶαν  
φοίνιος Ἄρης οὐκ ἐξένισεν,  
μήτηρ δ' ἡμὴ χῶ κοινολεχῆς  
Αἰγισθος ἔπας δρῶν ὕλοτόμοι  
σχίζουσι κἀρα φονίῳ πελέκει,  
κοῦδεις τοῦτων οἴκτος ἀπ' ἄλλης  
ἢ μού φέρεται, σοῦ, πάτερ, οὔτως  
αἰκῶς οἰκτρῶς τε θανάοντος.

'Ἄλλ' οὐ μὲν δὴ  
λήξω θρήνων στυγερῶν τε γόων.  
ἔς τ' ἂν πομφεργεῖς ἀστρων  
ρίπας, λεύσσω δὲ τόδ' ἡμαρ,  
μὴ οὐ τεκνολέτειρ' ὥς τις ἀηδῶν  
ἐπὶ κοκυτῶ τῶνδε πατρῶων  
πρὸ θυρῶν ἡγῶ πᾶσι προφωνεῖν.  
ὦ δῶμ' Ἄιδου καὶ Περσεφόνης,  
ὦ χθονί' Ἐρμῆ καὶ πότινι' Ἄρᾳ  
σεμναὶ τε θεῶν παῖδες Ἐρινύες,  
αἱ τοὺς ἀδικῶς θνήσκοντας ὀρᾶθ',  
αἱ τοὺς εὐνάς ὑποκλεπτομένους,  
ἔλθετ', ἀρήξατε, τίσασθε πατρὸς  
φόνον ἡμετέρου,  
καὶ μοι τὸν ἐμὸν πέμψατ' ἀδελφόν.  
μόνη γὰρ ἄγειν οὐκέτι σιωπῶ  
λύπης ἀντίροπον ἔχθρας.

(Théâtre de Sophocle; Robert Pignarre; Tome premier.-Paris, Librairie Garnier Frères)

ELETÈRE.—Ene argi aratz, eta egurats, lurraren zori-laguna! Amaika erosta-eresi entzun, eta nere bular odolduaren buruzkiko amaika ukaldien berri izan duk, gau illuna aituxe. Aita zori-gaiztokoa zenbat deitoratzen dudan etxe zorigaizto ontako gau-oe gorrotagarriak badaki! Atzerri-aldean, ba, etzun bere arrotz-sur atotsi Are gorrikkak, nere ama ta Aigist oe-lagunak, berriz, burua aizkora eriogarriz erditu zioten, egurgiñak artea antzo. Ta ori dala-ta, negar-zotiñik iñortxok eztu egin, neronek baizik, zu, aita! ain zitalki ta ain erruki gabe illa izanik. Ots! nere zinkurin eta eyagora zotiñok eztitut atertuko, izarren argizpi dardartiak eta eguzki ori ikusten ditudaño, arako urretxindor ume-eraille ura antzo, aitaren yauregi aurrean guziei aldarrikatu nai diet nere samiñaren berri.

Ene, Aide ta Persephone-ren yauregiok! Lurpeko Erme ta Arao agurgarria! Erini guren yainkoen alabok! bidegabe nortzu il eta nortzu diran oe-lapur ikusten dituzuten ezkerok, atozte! sorotzi! gure aita zanaren erioa apendu ta neri nere anaya igorri! Bakarrik ezin bai-dut luzaroagoan eraman itunaren zama astun au.


(Sopokel'en Antzerkiak ;Zaitegi eta Plazola'tar Jokin.-Mexiko, 1946; ELETÈRE, vv. 86-120)

65 **HASERREA** : "Quod enim graece positum est θυμός diverse interpretati sunt nostri. Nam ubi graeci co<sub>o</sub> dices habent ὀργή, ibi iram dicere latine nullus fere dubitavit interpres; ubi autem θυμός positum est, plerique non putaverunt iram esse dicendam, cum magni auctores latinae eloquentiae de philosophorum graecorum libris etiam hoc irae nomine verterint in latinum: neque de hac re diutius disputandum est; cui tamen si et nos aliud nomen adhibere debemus, tolerabilius indignationem dixerim quam furorem. Furor quippe, sicut se latinum habet eloquium, non solet esse sanorum".  
(Enarrationes in Psalmos, 87, 7)

Grekoz θυμός dakarrena gutarrek era ezberdinez itzuli zuten. Grekozko kodizeek ὀργή dakarten lekuan bada, ezin itzultzailek ez du ez bairik izan latinez haserrea ipintzeko. θυμός dioen lekuan, ordea, gehienek ez zuten uste haserrea ipini behar zenik, latin hizkeraren maisu handiek grekozko filosofoen liburuetatik izen hori ere haserre hitzaz itzuli bait zuten latinera. Hontaz ez da gehiago eztabaidatu behar. Guk beste izen bat ezarri behar badiogu, hobeki esango nuke sumina ero-haserrea baino. Ero-haserrea bada, latinezko berbak adierazten duenez, ez da izaten beren buruaren jabe direnena.

66 **HASERREA** : "Sed ego puto unam rem duobus verbis significatam: nam in graeco θυμός quod est in primo versu, hoc significat quod ὀργή, quod est in

(jatorrien taula hau, liburu beretik)



secundo versu; sed cum Latini vellent etiam ipsi duo verba ponere, quaesitum est quid esset vicinum irae, et positum est furor.

(Enarrationes in Psalmos, 6, 3)

Nik uste dut berba biren bidez gauza bakarra adierazi zela. Grekozko θυμός, lehenengo bertsoak dakarrena, eta bigarren bertsoan datorren ὀργή bat direla. Baina, latinoek eurek berba bi erabili gura, bai, eta haserrearen antzekoa zer ote asmatu nahiean ero-haserrea ipini zuten.

- Latinez FUROR hitza FURO, IS, ERE aditzetik dator, noski; eta aditz horrek "bere senetik irtenda" egotea adierazi nahi du.

67 **HASIERA**: "Ab initio cognovi, inquit, de testimoniis tuis, quia in aeternum fundasti ea. Quod graecus ait καταρχάς, aliqui nostri ab initio, aliqui initio, aliqui in initiis interpretati sunt. Sed qui pluraliter hoc dicere maluerunt, graecam locutionem secuti sunt. Latinae autem linguae illud potius usitatum est, ut ab initio vel initio dicatur, quod καταρχάς graece quasi pluraliter, sed adverbialiter dicitur: quale est apud nos, cum dicimus Alias hoc facio; pluralem numerum femini generis dicere videmur, sed adverbium est, et significat Alio tempore".

(Enarrationes in Psalmos, 118, XXIX, 9)

Hasieratik jakin dut, esan zuen, zure lekukotasunaren berri, betirako sendotu zenituen eta. Grekozkoak καταρχάς dakarrena, gutariko batzuk hasieratik, beste batzuk hasieran eta beste zenbaitzuk lehenengotan itzuli zuten. Pluralean esan gurago izan zutenek grekozko esakerari jarraitu zioten. Latin hizkuntzaz, berriz, egokiago erabili izan da hasieratik edo hasieran, καταρχάς grekoz pluralean, bai, baina adverbio moduan esaten da. Gure artean Alias egingen dut esatean bezalaxe. Badirudi pluralekoa generoz femenino egiten dugula, baina adverbio da, hau da, beste noizbait

68 **HASPEREN-HITZAK**: "Probabilius est ergo quod audivi a quodam hebraeo, cum id interrogassem: dixit enim esse vocem (raca) non significantem aliquid, sed indignantis animi motum exprimentem. Has interiectiones grammatici vocant particulas orationis significantes commoti animi affectum: velut cum dicitur a dolente, Heu!; vel ab irascente, Hem! Quas voces quarumque linguarum sunt propriae, nec in aliam linguam facile transferuntur: quae causa coegit tam graecum interpretem quam latinum vocem ipsam ponere, cum quomodo eam interpretaretur non inveniret."

(De sermone Domini in monte, IX, 23)

Nahikoa ziurtzat eman genezake hebreotar bati ikasi niona, hortaz galde egitean: esan zidanez, berba horrek (raca-k) ez du ezer esan nahi, haserre dagoenaren barne-egoera azaltzen du. Gramatikalariek hauei hasperen-hitza eman diete izena, gogo-eraginar-en joera adierazten duten ataltxoak. Halaxe esaten du minetan dagoenak, Heu!; edo sumindurik dagoenak, Hem! Hots hauek hizkuntza bati dagozkio eta zailak dira beste batera itzultzen. Arrazoi horregatik beharturik arkitu zen bai itzultzaile grekoa, eta baita latinoak ere, hitz berbera ipintzeko. Ez zuen asmatzen eta, nola itzuli.

**69** **HASPEREN-HITZAK**: "Sunt enim quaedam verba certarum linguarum, quae in usum alterius linguae per interpretationem transire non possint. Et hoc maxime interiectionibus accidit, quae verba motum animi significant potius, quam sententiae conceptae ullam particulam".

(De doctrina christiana, lib. II, XI-16)

Badaude hizkuntza batzutan berba batzu, beste hizkuntza baten moldetara itzultzeko erarik ez dutenak. Hasperen-hitzeekin gertatzen da hau bereziki, berba horiek adimenean sortutako esaldi baten atalak baino gehiago gogoaren gorabeheraren bat adierazten dute eta.

**70** **HASPEREN-HITZAK**: "Vox autem obsecrantis est Hossana, sicut nonnulli dicunt qui Hebraeam linguam

noverunt, magis affectum indicans, quam rem aliquam significans; sicut sunt in lingua latina quas interiectiones vocant, velut cum dolentes dicimus, Heu! , vel cum delectamur, Vah! dicimus; vel cum miramur, dicimus, O rem magnam! Tunc enim, O, nihil significat nisi mirantis affectum. Quod ideo credendum est ita esse, quia neque Graecus, neque Latinus hoc interpretari potuit: sicut illud, Qui dixerit fratri suo Racha. Nam et haec interiectionis esse perhibetur, affectum indignantis ostendens".

(In Joannis Evangelium Tractatus, LI, 2)

Hossana erregutzen duenaren hotsa da, hebreoz dakiten batzuk diotenez, eta eta sentiera bat aditzera ematen du ezein gauza baino gehiago. Latin hizkuntzan interjekzioak deiturikoak diren antzera. Esaterako, minez gaudenean badakigu esaten, Heu!; atseginez bagaude, aldiz, Vah! esaten dugu. Edo harriturik bagara esan ohi dugu, O gauzaren handia (hau gauzaren handia/handia da, gero!)! Hor O horrek ez du ezer esan nahi, harriturik denaren sentiera izan ezik. Eta badirudi sinesteko gauza dela, ez grekoak, ez latinoak ezin izan zuten eta, hori itzuli. Edo harako beste hura, Bere anaiari Racha esan diezaiona. Argi dago hau interjekzioa dela, hasperen-hitza dela, haserre dagoenaren barne-giroa erakusten duena.

Argi dago hiru atalotan erakaspen berdintsua ematendigula; azkenean adibide ugariagoak ematen ditu ela.

Hebreozko esanei dagokienez, hona Biblia-hiztegiak zer dakarren:

**Hosanná** (hebr. *hōsī'ānā'*: ¡ayúdanos, pues!). En el Sal 118,25 esta exclamación es una petición de ayuda constante para la victoria. Esta petición se fue transformando poco a poco en aclamación o vitor en honor de Yahvéh y/o del rey.

**Raca** (arameo *rēkā'*; transcripciones: gr. *ρακά*; Vg *raca*), expresión ofensiva, que significa «vacío», «hueco». La ofensa, que debía ser juzgada por el concilio (Mt 5,22), puede traducirse muy bien por «casquivano».

(H. Haag, A. van den Born, S. de Ausejo: "Diccionario de la Biblia"; Herder, 1966)

### De l'Interjection

L'interjection est un mot qui n'exprime pas nos pensées, mais est l'expression irréfléchie de nos sensations.

L'interjection joue un rôle complètement nul dans la proposition. Une exclamation n'exerce aucune influence grammaticale sur les autres mots de la phrase. La grammaire n'a, par suite, guère à s'en occuper.

Soit qu'il en ait été ainsi toujours, parce que l'interjection est un cri que la nature fait pousser en dehors de toute tradition, soit que les Basques aient subi l'influence française ou réciproquement, la plupart des interjections sont les mêmes en basque qu'en français. Comme nous, le Basque dira : *ha*, pour marquer la surprise ; *ah! aïe! hélas!* pour marquer la douleur ; *oh! ah!* pour marquer l'admiration, etc. Une interjection spéciale aux Basques est *hox*, allons!

Les locutions interjectives se traduisent littéralement, mais tandis qu'en français on supprime l'article, on emploie en basque la déclinaison définie ; ex. : grand Dieu ! *Jinco handia!* juste ciel, *celu justoa.*

(Elements de grammaire basque..., Louis Gèze; Bayonne, 1873/Hordago, 1979)

Iparaldeko euskalkiak ikertzen bait ditu, ez da harritzekoa gure hegoaldekorik ez aipatzea.

**Interjección. A. Ausruf.** Signo que puede contradecir las leyes fonológicas de una lengua (español *uf, paf*), o bien poseer una estructura fonológica correcta (*ay, oh*), sin valor gramatical, que desempeña las funciones\* lingüísticas de un modo elemental. Hay, por tanto, interjecciones apelativas (*eh, chist, ps*), expresivas (*oh, ah, ay*) y representativas (*zas, paf, pum*). Estas últimas son, a veces, verdaderas onomatopeyas. Los gramáticos griegos clasificaron las interjecciones entre los adverbios. Los latinos las

separaron, constituyendo con ellas una parte de la oración. Donato (siglo IV d. J. C.) la define: «significans mentis affectum». El término latino *interiectio* alude a que suele ir entre dos términos del enunciado, con independencia tonal. Vossio (1635) la definió como un equivalente de frase. Esta idea, viva aún en muchos gramáticos, ha sido atacada por Karcevski (1941), el cual hace ver cómo toda frase puede ser enunciada en estilo indirecto, pero la interjección, no. Vid. *Propio e Impropio*.

(Fernando Lázaro Carreter: "Diccionario de Términos Filológicos"; Edit Gredos, 1977)

### Interjección

Se denomina *interjección* a una palabra invariable, aislada, que forma una frase por sí sola, sin relación con las otras oraciones, y que expresa una reacción afectiva viva: el grupo de las interjecciones está formado por onomatopeyas (*¡puf!*, *¡eh!*, *¡oh!*, *¡ah!*, etc.), sintagmas nominales (*¡Dios mío!*, *¡por Dios!*, etc.), nombres (*¡cielos!*, *¡Dios!*, *¡diablos!*, etc.), verbos (*¡anda!*, *¡vamos!*, etc.), adverbios (*¡bien!*, etc.), etcétera.

(Jean Dubois eta beste: "Diccionario de Lingüística"; Alianza Diccionarios)

71 **HATSA(AZKEN)ATERA** : "Ideo enim dicitur exspirare, extra spiritum fieri. Quomodo est exulare, extra solum fieri; exorbitare, extra orbitam fieri: sic exspirare, extra spiritum fieri; qui spiritus anima est".

(In Joannis Evangelium Tractatus, XLVI, 11)

Eta halaxe esaten da hatsa atera, izpiritutik at. Eta horrela atzerriratu, herritik at; bidetik atera, bidetik at: horrelaxe, ba, hatsa atera, izpiritutik at gelditu; eta izpiritu hori anima da, noski.

• Latinez errazago egin da hitz-jokoa, denak EX- aurizkiaren bidez bait daude eginak. Euskaraz hola korik ezin eta erarik antzekoena bilatu dut, nola baiteko soinu berdintsuaren laguntza belarriari emateko: hatsa ATera...-tik AT; ATzerriratu...herritik AT; bidetik ATera...bidetik AT.

Horrez gainera exSPIRARE eta HATSA ez dira azalantzekoak; hatsa eta izpiritu azalez urrun daudelako.

Oraingoan ITZULI edo BIHURTU, benetan, BIHURRITU izan dira.

72 **HERRIA** : "Si autem populus non isto, sed alio definiatur modo, velut si dicatur, Populus est coetus multitudinis rationalis, rerum quas diligit concordia communione sociatus".

(De Civitate Dei, XIX, 24)

Eta herriaren azalpena era hontara ez eta beste era batera eman nahi bada, esate baterako: Adimendun askoren batza da herria, gogoko dituen gauzekiko elkar-irritsez bildua.

Azkue-k ez arren, Lhande-k bai dakarren POPULUaren bidez zer nahi den aditzera eman ulertzen dugularik, bihoa hemen gehigarritzat Bizkaian, Txori errin behintzat asko entzuten dena: bai, Bizkaian erri asko dagoz, adibidez; eta honako beste hau: bai, or be erri andi dago eta beste eskola bat ipini bearko litzake, umeak ona etorri bearrik euki ez dagien.

Dena den, ikustagun latinez arazoa:

1 *pōpulus*, *i*, *m.*, ¶ 1 peuple [habitants d'un État constitué ou d'une ville]: Cic. *Rep.* 1, 39; *Phil.* 6, 12; *populus Romanus*, *Syracusanus*, le peuple romain, syracusain; *defecere ad Pænos hi populi, Atellani, Calatini...* Liv. 22, 61, 11, passèrent aux Carthaginois les peuples suivants, les Atellans, les Calatins... ¶ 2 [à Rome] le peuple [opp. au sénat]: *senatus populusque Romanus*, le sénat et le peuple romain [= les deux organes essentiels de l'État; abrég. S. P. Q. R.] ¶ le peuple, [ensemble des citoyens de tout ordre opposé à *plebs*, plèbe, comme le tout à la partie]: Liv. 2, 56, 12; 29, 27, 2; Cic. *Mur.* 1 ¶ [rar<sup>1</sup>] plèbe, populace = *plebs*: *MART.* 8, 15, 3 ¶ 3 les gens, le monde: *TER. Ad.* 93; *Ph.* 911; *populi contemnere voces* *HOR.* S. 1, 1, 65, mépriser les propos du monde ¶ le public: *PL. As.* 4; *Pæn.* 11; *TER. And.* 3; Cic. *de Or.* 2, 339; *populo vacare* Cic. *Tusc.* 2, 64, n'avoir point de public, de spectateurs ¶ [aliquis] ez ou de *populo* Cic. *Br.* 320; *Arch.* 25, [qqn] de la foule, le premier venu, cf. *unus* § 2 ¶ 4 [rare] canton, région: Liv. 21, 34, 1 ¶ *populus* *OV. F.* 1, 136, le public = le dehors, opposé à *Lar*, le dedans de la maison.

*coetus*, *ūs*, *m.* (cf. *coitus* de *coco*), ¶ 1 jonction, assemblage, rencontre: *stellarum coetus* *GELL.* 14, 1, 14, conjonctions de planètes; *mors dissipat coetum ollis* *LUCR.* 2, 1000, la mort les désagrège; *eos primo coetu victimus* *PL. Amph.* 657, nous les avons vaincus à la première rencontre ¶ 2 réunion d'hommes, assemblée, troupe: *matronarum coetus* Cic. *Fin.* 2, 12, réunion de mères de famille; *sollemnes coetus ludorum* Cic. *Verr.* 5, 136, assemblées annuelles pour les jeux; *vixdum coetu vestro dimisso* Cic. *Cat.* 1, 10, quand vous veniez à peine de vous séparer; *coetus cygnorum* *VING. EN.* 1, 398, troupe de cygnes ¶ [fig.] mouvements séditieux, intrigues: *miscere coetus* *TAC. An.* 1, 16, fomentation des cabales, cf. *SUET. Cæs.* 41, 3 ¶ 3 union, accouplement: *ANN.* 6, 43.

(Félix Gaffiot: "Dictionnaire Illustré Latin-Français"; Hachette-Paris, 1934)

73 **HILBURUKOA**: "Cur autem in κληροις Testamenta intelligantur, cum hoc nomen graecum sit quidem, sed Testamentum non ita dicatur; haec causa est, quia p-er Testamentum datur hereditas, quae graece appellatur κληρονομία, et heres κληρο-νόμος. κληρος autem sors dicitur graece, et sortes ex promissione Dei, partes hereditatis vocantur, quae populo sunt distributae".

(Enarrationes in Psalmos, 67, 19)

Eta zergatik κληροις horretan Testamentuak ulertu diren, grekozko berba izan, bai, baina Testamentua horrela esaten ez bada; hauxe da arrazoia: hilburukoa ren bidez jarauntsia ematen delako, grekoz κληρονομία esaten dena, eta oinordeko κληρο-νόμος. κληρος, berriz, grekoz zortea da, eta Jaungoikoak agindutako zortea, jarauntsiaren zatiak dira, herriari banandutakoak, alegia.

• Halaxe da, izan ere, San Agustin-ek dioen moduan, grekoz testamentua, hilburukoa διαθήκη esaten da.

(jarraitzeko)



AS	bronze		L'as reparaît en 15 av. J.-C. avec le poids d'1/3 d'once (9 gr).
NUMMUS	laiton	4 as	C'est le nom du sesterce, désormais frappé en laiton (poids : 1 once = 27 gr).
DENARIUS	argent	4 nummi	Reste la pièce courante dans tout l'empire. Sous Auguste, il pèse 3 gr 41; Marc-Aurèle et Commode le dévaluent sérieusement.
AUREUS	or	25 deniers	Frappé régulièrement sous l'Empire. Mais dès Auguste, son poids diminue : 7 gr 79 (7 gr 30 sous Marc-Aurèle).



As à l'effigie de Drusus      Nummus à l'effigie de Domitian      Denier à l'effigie de Néron      Aureus à l'effigie d'Auguste

← dimensions réelles →

GUIDE ROMAIN ANTIQUE

(Classiques Hachette; Paris, 1975)

(63. etimologiaren argigarria)